

EPELEKO KONPOSTAJE-PLANTARAKO BAHEGAILU BATEN HORNIDURA KONTRATATZEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

2015 URT. 30

Aprobado por Consejo de Administración. (e)an onartua

Hernani,

2015 URT. 30
ENE. 30

1 HELBURUA

Bergaran (Gipuzkoan) kokatua dagoen Konpostajeko Plantan konposta egiteko prozesurako bahegailu berriaren hornidura da preskripzio teknikoaren agiri honen helburua.

2 KONTRATU HONETAN SARTZEN DEN PROZESUKO MAKINERIA

2.1 BAHETZEKO EKIPAMENDUA:

Instalazioak finkoa izan behar du, hornidura elektrikoarekin, eta 10 x 17 m-ko (+ - % 6) bahetzeko eremu batean doitzeko modukoa, horixe baita 1. eranskineko planoan dagoen espazioarekin ondoen egokitzen den konfigurazioa.

Maiztasun-modulagailu batekin hornitua eta kontrolatua dagoen motor elektriko batek erregulatuko du materialaren hornidura-abiadura. Elikatzeko zintak larrialdiko itzuleraren aukera izango du bere baitan.

Ekipamenduak kontrol automatikoko segurtasuneko "stop/start" sistema ere izango du, larrialdiko geraldia gertatzen diren kasuetarako.

Bahetzeko ekipamendua beharrezkoak diren garraioko zerrenda mekanikoz hornitua egongo da.

Bahetzeko gaitasun nominala 120 m³/h-koa izango da, eta gutxieneko gaitasun erreal bermatua, berriz, 60-75 m³/h-koa.

Lubrifikazioko sistema zentrala eduki beharko du, bertara erraz iristeko 2-3 gunerekin. Eta bonba pedaldun bat izango du berariaz horretarako prestatua.

Eskailera bat eta zerbitzu-plataforma bat ere izango ditu.

Ekipamendua ondorengo osagaiak eratuko dute:

2.1.1 Bahe birakaria (tromela):

Tromela sare-zilindrozko instalazio finkoa da, gutxienez 80 m-ko diametroa eta 4 m-ko luzera dituena (+ - % 10).

Bahetzeko tamaina 10 mm-koa izango da.

Autogarbitzeko sistemari esker danborra barrutik garbitzeko eskuila edo zepilloa izango du.

Eta baita materialari modurik hobereanean aurrera egiten lagunduko dion barruko eraztun helikoidala ere.

Kate bidezko danbor-irabiagailua.

Materialaren (material finaren nahiz lodiaren) irteera zinta bidez gauzatuko da, eta zinta hori dagoen espaziora egokituko da.

2.1.2 Elikagailua:

Bahetzeko lanen eraginkortasuna areagotzeko (denbora galdu edo hutsarterik ez egoteko, alegia), gutxienez 9 m³-ko toberaz hornitutako elikagailua behar da. Elikatzeko abiadura erregulatuko duen sistema ere izango du elikagailuak. Eta aurreko guztiaz gain, elikaduraren urruneko kontrola egitea ere posible izango da, langileak elikatzailearen kabinatik aritzeko modua edukiko baitu.


2.1.3 Bereizgailu pneumatikoa:

Bahetzeko ekipamenduaren barruan bada bereizgailu pneumatiko bat, plastikoak, alde batetik, eta zati lodiak (>10 mm), bestetik, bereizi edo banandu ahal izateko. Era horretan material hori guztia berriro prozesuan sartzeko aukera edukiko da, eta inpropio edo desegokien proportzioak ez du gora egingo, prozesuan behin eta berriz erabiliak izango direlako.

Aspirazio edo xurgatzeko intentsitatea doitzeko sistema bat ere eduki behar du, motorraren maiztasuna urruneko kontrol-sistema bidez

modulatuz.

Bereizgailuaren eta edukiontzia-arte lotura gisa balioko duen hodi malgu bat ere egongo da osagaien artean.



2.2 SARE-EDUKIONTZIA

Edukiontzia gako modukoa izan behar du eta bere gutxieneko edukiera 27-30 m³-koa izango da.

Aireari irteteko modua emango dion sare batez hornitua egongo da edukiontzia. Baina pneumatikoki bereizi den material plastikoak, ordea, ezingo du hortik irten.

3 ENTREGATZEKO LEKUA ETA EPEA

Materiala entregatzeko gehieneko epea 3 HILEKOA (12 astekoa) izango da, kontratua sinatzen den datatik kontatzen hasita. Materiala GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUK adierazitako harrera-lekuan entregatuko da.

Esleipen-prezioaren barruan sartzen da, batetik, makineria guztia GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUK adierazitako harrera-lekuan entregatzea eta, bestetik, Agiri honetako 1. eranskineko planoan ekipamendu horrentzat ezarritako lekuan kokatzea.

Era berean, gutxienez 8 orduko trebakuntza emango zaie GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA, SAUK adierazitako langileei, bertako makineria erabiltzen ikas dezaten, eta baita erabilaldi bakoitzaren ostean egin beharreko garbiketa-lanak, beharrezko errutinazko mantentze-lanak eta urtean behin edo laneko 1.000 orduz behin egin beharreko mantentze berezia egiteko gai izan daitezten. Lan hori eskaintza hau osatzen duten makina bakoitzaren kasuan ongi zehaztuta egongo da.

4 ESKAINTZA AURKEZTEA

Lizitazaile bakoitzak txosten tekniko bat erantsi beharko du bere eskaintzaren

barruan, eta txosten horretan berariaz egiaztatuko dira idatziz eta modu grafikoan agiri honetako 2. atalean deskribatutako ezaugarri tekniko guztiak eta bakoitza, ondoren zehaztutako informazio guztia ere eskaintzeaz gain:

4.1 OINARRIZKO EZAUGARRIAK

- Hautatutako materialen lanerako gaitasuna eta tipologia
- Dimentsio edo neurriak
- Beharrezko potentzia
- Tromela edo bahe birakaria beste sare batera aldatzeko eman beharreko pauso guztien azalpen grafikoa.



4.2 AUKERAKO EZAUGARRIAK

Lizitatuak bakoitzak prozesurako hornitu beharreko makinerian egokitzen dituen aukerako ezaugarriak zehaztuko dira atal honetan.

4.3 DOKUMENTAZIO OROKORRA

- Hornitutako makina desberdinek eduki ditzaketen zirkuitu hidrauliko, elektriko nahiz elektronikoen eskemak.
- Materialaren erabilera eta mantentze-lanetarako jarraibideen eskuliburua, gaztelaniaz idatzia.

4.4 BESTELAKO DOKUMENTAZIOA

Dokumentazio teknikoaren gutun-azalean argi adierazi beharko da zenbat astekoa izango den materiala entregatzeko epea, behin betiko esleipen-datatik kontaktzen hasita.

Era berean, lizitatuak hurrengo ezaugarriak ere zehaztuko dituzte beren eskaintzetan:

- Elektrizitate-kontsumoa.
- Adostasun-adierazpena

- CE marka

5 MANTENIMENDUA

Lizitatzailerak eskaintzeko gai den laguntza teknikoko zerbitzua ere zehaztuko da eskaintzan, zer-nolako laguntza teknikoa emango duen xehetasun osoz adieraziz, eta zerbitzu hori bere baliabide propioekin eskainiko ez duen kasuetan salmenta osteko zerbitzua zein enpresa homologaturen edo tailer itunduren bitartez egingo den argi eta garbi zehaztuz. Logika hutsez, Epelek Bergaran duen Konpostaje Plantatik hurbilen dauden biltegia eta tailerra zehaztu beharko dira.

Modu errutinarioan egin beharreko garbiketa eta mantentzeko lanak xehetasunez zehaztuko dira, eta baita aldi bereko behingoak ere. Azken motakoei dagokienez, horietako bakoitzean zenbat lanordu eta/edo zenbat denbora emango den ere aipatu beharko da, lan horien kostua ere adieraziz.

Lizitazioko prezioaren barruan ez da sartzen prebentzioko mantentze-zerbitzuaren kostua, baina bai, ordea, zuzentzeko mantentzearena; eta azken horren barruan aurreneko bi urteetako eskulanaren nahiz materialen kostua sartuko da. Txosten teknikoan argi eta garbi zehaztuko dira zeintzuk diren egin beharreko prebentzioko mantentze-eragiketak, eta horrela, mantentze-lan bakoitzerako erabiliko diren materialak eta eskulana definituko dira. Eragiketa horiek guztiak denboraren ikuspegitik ere definitu beharko dira, horien maiztasun edo aldizkotasuna zehaztuz eta kostu ekonomikoa baloraturaz.

Ilido honetatik, ordeztu beharreko piezen eta mantentzeak iraungo duen bitarteko lanen gutxi gorabeherako zerrenda bat ere osatuko da, makina bakoitzaren lanorduen arabera betiere, eta materialen nahiz eskulanaren banakapena eginez. Adierazitako informazio hori guztia loteslea izango da aurreneko 2 urteetan. Esleipendunak bere Zerbitzu Teknikoaren bitartez

bermatuko du aipatutako mantentze hori.

Aurrekoaz gain, 8 orduko trebakuntza emango zaio erabat dohainik GHK-k adierazitako langileei, bahetzeko ekipamenduaren mantentze-lanen inguruan. Eta horniduraren barruan funtzionamenduari eta mantentze-lanei buruz gaztelaniaz idatzitako eskuliburuak ere sartuko dira.

6 BERME TEKNIKOAK

Makineria osoari dagokion 24 hileko denboraldirako bermea ere sartzen da lizitazioko prezioan, materialak nahiz eskulana ere barruan hartuz. Behin betiko Harrera Akta sinatu ostean jarriko da indarrean bermea.

7 HOBKUNTZAK

Lizitatuak hobekuntzak proposatu ahal izango dizkio Agiri honi, bere ustez egokiak diren baliabideak nahiz bitartekoak eskainiz, berak proposatutako hobekuntzaren alderdi teknikoak eta ekonomikoak azalduz, aipatuz eta baloratuz. Eta lizitatuak Ezaugarri Teknikoen Agiri honetako 4. puntuan eskainitakoaren arabera baloratuko dituzte hobekuntza horiek GHK-ko teknikariek.

Dena den, hobekuntza horiek inola ere ez dute kostu-gehikuntzarik ekarriko GHKrentzat.

ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK
2015 IIPT 30 (e)an onartua
Aprobado por Consejo de Administración.
Hernani, 2015 UFT. EME. 30
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa
Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa

I. ERANSKINA - BAHETZEKO EREMUAREN XEHETASUNA

